

Hator, hator etxera

Euskaldunon Egunkaria, 1996-10-06: 3.

Ez dakit hiru alderdi abertzaleek inoiz egin duten bat politika mailan orain bezala. Estreinakoa ez bada ere, hainbeste dugu irrikitu elkarraldi hau, itxurazko zerbait zentzu onez elkar hartze hau, doinu berri bat sumatu diot giroari. Euskal kutsu garbiaz gain, gaztainerreen usain eta zapore esanguratsu bat ere, gainera. Nahiak badu zerikusirik, noski, zeren eta berria berez xumea da: "Euskal Presoak etxetik gertuen dauden espetxeetara ekartzeko eskatuko dio Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak Espainiako Gobernuari". Hemen bistako garrantzia duena eskariaren beraren zentzua da, edukina bera; baina bada ere, noski, honez gain EAJ, EA, IU eta HBko parlamentarioek elkarrekin ahobatez legezko den eskabide hau egitearen balentria ere. Ez diezaiogun orain politikoei berea dena ukatu! Zeren eta hau da, hemen eta han, gaur ikusi duguna; eta, zentzu berean negatiboaren funtzio teknikoa betetzen badator ere, PP, PSOE eta UA ideologien gainera biltzen dituen espainolismoaren oldarkotasunarekin korazatuta erakutsi duten bere uniforme nazionala.